



## BITREKTOMIA-EBAKUNTZARAKO PRESTAKUNTZA

Bitrektomia bat egiteko prestatu zaituzte. Humore beirakara erauzten da ebakuntza horrekin. Horrela, errazago irits daiteke begi barruko lesioetara. Humore beirakaren ordeztu, seruma, airea, gasa, silikona-olioa eta beste substantzia batzuk sartzen dira, erretina zigitatzeko.

### EBAKUNTZA EGIN AURREKO EGUNETARAKO GOMENDIOAK:

- Ukipen-leiarrak erabiltzen badituzu, kendu itzazu ebakuntza egin baino 48 ordu lehenago.
- Sukarra, hotzeria edo kirurgia eragozten duen beste osasun-arazoren bat baduzu, jarri harremanetan Programazio Kirurgikoko zerbitzuarekin, 945.00.71.35 telefono-zenbakira deituz.

### EBAKUNTZA-EGUNERAKO GOMENDIOAK:

- Baraurik egon behar duzu aurreko gauetik; ezin duzu likidorik ere hartu.
- Gosariko ohiko medikazioa hartu behar duzu, ahalik eta ur gutxienarekin. Garrantzitsua da medikazioa ez uztea, betiere anestesistak beste ezer zehazten ez badu.
- Diabetikoa bazara:
  - Intsulina jartzen baduzu, goiz horretan ez jarri.
  - Diabeteserako pilulak hartzen badituzu, ez hartu ebakuntza baino 24 ordu lehenagotik.
  - Etxera itzultzen zarenean, ekin berriz zure ohiko tratamenduari.
- Koagulazioaren kontrako tratamendua hartzen baduzu (Sintrom<sup>®</sup>, Adiro<sup>®</sup> edo AAS, Plavix<sup>®</sup> edo klopidoigrela), jarraitu anestesia-konsultan adierazitako urratsei.
- Gorputza ondo garbitzea gomendatzen da, garbitasunak infekzio-arriskua gutxitzen baitu.
- Kendu azazkaletako esmaltea, ordularia, bitxiak eta makillajea.
- Ordezko hortzeria edo audiofonia baduzu, ekarri.
- Komeni da txapinak ekartzea.
- Ez ahaztu zure osasun-dokumentazioa ekartzea.
- Gomendagarria da senitartekoren batekin etortzea eta etxerako itzulera lotua izatea, zuk ezin izango baituzu gidatu.

Garrantzitsua da ebakuntzaren egunean programatutako orduan etortzea. Sartu AUO-Txagorritxuko ate nagusitik, eta joan Herrerara; han, OGKUrak lagunduko dizute, eta ebakuntza egiteko dena prest egon arte itxaron beharko duzu.

Ebakuntza anestesia lokalarekin eta sedazioarekin egiten da, anestesia orokorra behar denean izan ezik (zehaztuko litzateke, hala beharko balitz).

Ebakuntza egin eta handik ordu batzuetara emango dizute alta. Hurrengo egunean, lehenengo sendaketa egingo dizute Oftalmologiako konsultan, eta han emango dizkizute beharrezko gomendioak.

Kasu batzuetan, baliteke jarrera jakin batean egon behar izatea ebakuntza ondorengo egunetan. Hala egon behar baduzu, alta ematean jakinaraziko dizute.